

AHUNTZA ETA ZAZPI ANTUXUMEAK

Irati Goikoetxea

Beasain, 13 urte

1.- Ahuntza:

Esne piska bat salgai dudala,
ferira noa astero bezala,
ez ireki atea inori,
otsoaren tranpan ez erori,
ez nago trankil,
otsoa dago etxetik hurbil,
eta zuek jan nahian dabil.

2.- Antxumea:

Ate danbada, ate danbada,
hau urduritasuna, hau ikara.

Otsoa:

nire antxume txiki maitea,
amatxo naiz ireki atea.

Antxumea:

gizon arrotza,
mintzaera gogor eta zorrotza,
hori ez da amaren ahotsa.

3.- Otsoa:

Hau zorte txarra izan dudana,
joan behar dut oiloarengana,
ahotsa leundu nahiko nuke,
hartu dirua arraultzen truke.

Oiloa:

arraultzak tori,

ahotsarentzat ona da hori,
baina ez egin kalte inori.

4.- Otsoa:

Nire antxume txiki maitea,
amatxo naiz eta ireki atea,

Antxumea:

Hanka erakutsiezaguzu,
zuk ile marroi gehiegi duzu,
otso deabru,
inuxenteak ez garenez gu,
amak hanka zuriagoa du.

5.- Otsoa:

Errotaria, errotaria,
entzun ezazu nire eskaria,
emango al didazu irina,
hankak zuritzeko nahi adina,

Errotaria:

hemen daukazu,
baina irinaren truke aizu,
zintzo portatu beharko duzu.

6.- Otsoa:

Pam! Pam! Atea jo dut berriro,
hitzegin beharko dut maitekiro,
nire antxume txiki maitea,
amatxo naiz ireki atea.

Antxumea:

bi hankak zuri,
ahotsa berriz gozo eta guri,
gure amatxo dela dirudi.

7.- Antxumea:

Ene amatxo sartu barrura,
saldu al duzu esne eta berdura?

Otsoa:

hau da askari zoragarria,
asetzeko gose-egarria.

Antxume txikia:

erloju kaxan,
ezkutatuko naiz xagu trazan,
otsoak ni ere jan ez nazan.

8.- Ahuntza:

Arranopola! Otso ankerra,
orain ere egin digu ederra,
jana dit familia guztia,
ai ene nire seme txikia!

Antxume txikia:

amatxo lasai,
bagara otsoa hiltzeko gai,
eta anaiak salbatzeko ere bai.

9.- eta...

Tripa ireki, haurrak atera,
harriak sartu sabel barrenera,
ura edaterako unean,
otsoa ito da azkenean,
horrela bazan,
sartu daitezela kalabazan,
eta irten Tolosako plazan.